

GASTEIZKO GIZARTE KONTSEILUAREN TXOSTENA, HERRITARREK PARTE HARTZEKO ORGANOETAN 2023RAKO AURREKONTURAKO PROPOSAMENAK JASOTZEKO EGIN DEN PROZESUARI BURUZKOA

SARRERA

Gasteizko Udaleko Gizarte Kontseiluaren funtzioetako bat da urteko aurrekontu-proposamenari buruzko nahitaezko txostena egitea.

Gizarte Kontseiluaren ustez, udal-legegintzaldiaren azken urte honetan eraginkorragoa izan daiteke proposamenak gobernu-taldeari eta udal-talde politikoei egitea, aurrekontu-proiektua aurkeztu aurretik. Gainera, elkargunek eta auzogunek egindako lanak balio handia izan dezake alderdi politikoek hurrengo udal-hauteskundeetarako beren programak aurkezteko orduan.

Erabaki hori kontuan hartuta, Herritarren Partaidetza Zerbitzuak elkargunekin eta auzogunekin biltzeko egutegi bat programatu du (irailean eta urrian) aurkeztu beharreko proposamenak zehazteko, betiere legegintzaldi honetako aurrekontuen nahitaezko txostenetan aurkeztu denaren bilduma bat abiapuntutzat hartuta.

Horrela, elkarguneen eta auzoguneen bilerak antolatu dira 2022ko irailaren 19tik urriaren 10era. Biler horietan parte hartu dute, politikariez eta teknikariez gain, 75 elkartetako 131 pertsonak (71 gizon, 59 emakume eta ez binario bat) eta beste 20 pertsonak, norbere izenean.

Azkenik, Gizarte Kontseiluak ondorengo dokumentua prestatzea erabaki zuen 2022ko urriaren 13ko lan-saioan, aurreko eztabaida-saioetatik ateratako ondorioak abiapuntutzat hartuta.

Dokumentua hiru ataletan egituratuta dago:

- Elkarguneen 2023ko aurrekonturako proposamenak.
- Auzoguneen 2023ko aurrekonturako proposamenak.
- Aurrekontuen eztabaida-prozesuari buruzko gogoetak eta proposamenak.

ELKARGUNEEN 2023KO AURREKONTURA KO PROPOSAMENAK

BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA

- Harrera- eta bizikidetza-guneak sortzea.
- Etxebizitzarako eskubidea bermatzeko estrategiak.
- Elkarteei bideratutako partidak areagotzea. Asko dira kolektiboak eta gutxi baliabideak; horien artean sortzen den lehiak ez du ezertxo ere laguntzen.
- Dirulaguntza-deialdien planteamendu berri bat egitea; izan ere, lege berriak zenbait urtetarako proiektuak aurkezteko aukera ematen du, gauzatze-epe luzeagoekin.
- Hirian irisgarritasun-araudia betetzen ez duten oztopo-zutoinak kentzea.
- Hiri hezitzailearen partida handitzea.
- Ingurumen-patruilak indartzea, bide publikoa legez kontra okupatzen ez dela zaintzeko.
- Bizikidetza eta Aniztasun, Gazteria eta Berdintasuneko elkarguneen artean sinergiak ahalbidetzea, hurrengo urtean hiru planak elkarrekin lotuko dituen aurrekontu-proposamen bateratu bat aurkeztu ahal izateko.
- Herritar guztientzako doako aholkularitza juridikoa.
- Semaforoetako soinu-mailen funtzionamendua berrikustea eta soinurik ez dutenei soinua jartzea.
- Gizarte-politiketara bideratutako aurrekontu-igoerari dagokionez, bizikidetza eta aniztasuna sustatzeko politikak bultzatzea proposatu da, diskurtso xenofoboak, arrazistak eta zurrumurruek ekiditeko.
- Osasun mentalaren problematika ikusgai egiteko kanpainak.
- Udal-langile guztiei prestakuntza ematea, dibertsitate funtzionalei eta kolektibo bakoitzarekin elkarreragiteko moduari buruz.
- Udalaren kultura- eta kirol-jarduera guztietan aniztasunaren begirada txertatzea.

- Dibertsitate funtzionaleko pertsonak eta kolektibo zaugarriak barne hartzen dituzten elkarteei langile profesionalak dituzten gizarte-etxeetako kirol-aretoetara eta -jardueretara doan sartzeko aukera ematea.
- Oinezkoentzako ibilbide irisgarria errespetatzeko kontzientziakampaina.
- Zuhaitzak kimatu eta mantentzea, hiriko argiztapena ez oztopatzeko.
- Harrera eta zaintzarako erreferentzia-puntu fisikoak gaitzea hiriko auzo guztietan.
- Elkarteei eta kolektiboek hutsik dauden udal-lokal publikoak erabiltzeko aukera ematea, pertsona horiek zaugarriak izan ala ez.

EXCEL BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNA

GARAPENERAKO LANKIDETZA

- Udal-aurrekontuaren % 0,7 gutxienez garapenerako lankidetzara bideratzearen garrantzia azpimarratzen jarraitu da. Zentzu horretan, ehuneko hori aurrekontu bateratuaren gainean kalkulatu behar dela aipatu da. Gainera, % 0,7 horrek gutxienezkoa izan behar du; ez du koiunturala izan behar, ezta beste zuzenketa batzuen arabera ere. Konpromiso instituzional gisa bete behar da.
- Udal-aurrekontuaren % 1era iristearen konpromiso instituzionala betetzea.
- Aurreko puntu hori lankidetzarako aurrekontua beste arlo batzuetara bideratzearekin lotzen dute, eta hori ez egitea eskatzen dute. Ehunekoa kalkulatu eta gero beste arlo batzuetara bideratzen bada, ehunekoa murriztu egiten dela adierazten dute.
- Gizarte-eraldaketarako hezkuntza lankidetzaz-zerbitzuaren ildo estrategiko bat bada, horrek plan zuzentzailean jasota egon beharko luke, tresnetan eta aurrekontuan; eta bereizi egin beharko litzateke. Gainera, oso garrantzitsua da ekonomia soziala eta solidarioa aipatzea, eta ez gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren arloan lan handi bat egiten denean bakarrik.
- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoak ondo funtziona dezala. Aurrekontua handitzea, plataforma hobetzeko eta komunikazioa bermatzeko.

- Berariazko ekintzak edo diagnostiko-azterlanak garatzea, zeharka bada ere, sailen artean udal-politiken koherentzia lantzeko. Udal-politika koherente bat lortzea da xedea.
- Proposamen berri bat helarazi da: zeharkako kostuen ehunekoez eztabaidatzeko gune bat sortzea. Horrek dekretu-aldaketa eragin dezake. Erakundeek adierazi dutenez, handitu egin da lan burokratikoa, eta horrek aparteko administrazio-karga eragiten du. Uste dute zeharkako kostuek administrazio-karga horrekiko proportzionalak izan behar dutela.

EXCEL GARAPENERAKO LAGUNTZEKO

KULTURA

- Hezkuntza-komunitatean eskola-proiektuak garatzea. Katalunian gauzatzen ari den ereduari jarrai diezaioketen egoitza-proiektuak dira.
- Desgaitasuna duten pertsoneri sarbidea bermatzeko eta hori ikusgai egiteko konpromisoa izango duten gune instituzional eta pribatuen sare bat sustatzea, Bartzelonako APROPA CULTURA ereduari jarraikiz. Ekimenak honako hauek hartzen ditu barne: sare horretako ikastetxe guztien programazioa jasotzen duen web-plataforma bat; kultura-eremu horien konpromisoa, pertsona guztiei sarbidea bermatzeko (adibidez, laguntza behar duten pertsoneri lagunduz), eta abar.
- Haur txikientzako kultura garaikideko proiektuetan gehiago laguntzea. Dagoena oso urria dela eta eskaera handia dagoela adierazi dute.
- Artea eta Auzoa. Laborategi edo gune bat sortzea, baterako programazio-prozesu bat nola kudeatu aztertzeko. Auzoetan guneak/kontseiluak sor daitezela sustatu nahi da, lekuan lekuko eragileekin (migratzaile-kolektiboetako ordezkariekin eta auzo-elkarteetako ordezkariekin, eta norbanakoekin, besteak beste), gizarte-etxeetan programazio propioa izan dezaten. Kultura-programazioaren diseinuan hainbat jatorri eta ezaugarritako (jatorria, adina, kultura...) pertsonen parte hartzea lortu nahi da, publiko berriak sartzeko, integrazioa eta herritarren parte-hartzea errazteko, eta abarretarako. Proposamen horrek eztabaida bizia sortzen du publikoei dagokienez eta gure hirian kultura sortzeari dagokionez. Era berean, lehen ere partaidetza-esperientzia arrakastatsuak izan direla azpimarratu da; Iparraldeko gizarte-etxea, adibidez, herritarren ekarpenak kontuan hartuta birmoldatu zen.

- Kudeaketari dagokionez, dirulaguntzei eta laguntzei dagokien guztia sinplifikatzea (proiektuen justifikazioa, izapideak eta abar).
- Kolektibo kulturek sorkuntzarako gune fisikoetara sarbidea izan dezatela erraztea.
- Gizarte-etxeren baten kultura-eskaintzan espezializatzea.
- Dantza Kontserbatorioa artisten bizileku bihurtzea eta zentro horretarako aurrekontu-partida mantenduko dela bermatzea, Eusko Jaurlaritzak kudeatuko duen arren.
- Gizarte-etxeetako aurrekontu-partida handitzea, azkarrago eta modu independente eta eraginkorrean programatu ahal izan dezaten.

EXCEL KULTURA

EUSKARA

- 500.000 euroko partida, Izaskun Arrue kultur etxea kudeatzeko. Kantitate hori hitzarmena sinatzeko erabiliko litzateke.
- Auzoetan (erdigunetik kanpo) sortzen ari diren euskararen aldeko elkarreentzako dirulaguntza-lerro bat gaitzea, beren jarduera garatu ahal izan dezaten.
- Partida asko (gehienak) eguneratzea, diru-kantitate bera baitute aspalditik. Horretarako, kontsumo-prezioen indizea hartu beharko litzateke kontuan gutxienez.
- Komunikabideentzako dirulaguntzen lerroan beste irizpide batzuk hartu beharko lirateke kontuan. Izan ere, gaur egun lan handia egiten da Internetez, eta hori, adibidez, ez da kontuan hartzen.

EXCEL EUSKERA

BERDINTASUNA

- Genero-berdintasunaren arloan dirulaguntza-deialdiaren planteamendu berri bat egitea, xede horretarako aurrekontu-partida bat lehenetsiz eta gauzatze-epe luzeagoak dituzten zenbait urtetarako proiektuak aurkezteko aukera emanez.
- Elkarteei bideratutako partidak handitzea. Asko dira kolektiboak eta gutxi baliabideak; horien artean sortzen den lehiak ez du ezertxo ere laguntzen.
- Kolektiboen artean sinergiak ahalbidetzea (jardunbide egokiak trukatur), baita Bizikidetzak eta Aniztasun, Gazteria eta Berdintasuneko elkarguneen artean ere.
- Baliabideak inbertitzea eta erreparazioari bere lekua ematea.
- Berdintasun-zerbitzuaren ildo estrategikoen berri ematea, publiko espezifikoari bideratutako komunikazio-kanpainen baliabideak inbertituz (Martxoak 8, Azaroak 25, Martxoak 17...).
- Elkarteei berdintasunaren arloko prestakuntza zehatza ematea.
- Baliabideen mapa on bat egitea (eguneratua) eta hirugarren sektorearekin sozializatzea.
- Energia-pobretasuna jasaten duten pertsonentzako laguntzak sortzea.

EXCEL BERDINTASUNA

HAURRAK

- Bullyingaren aurkako kanpaina.
- Nerabeentzako parkea.
- Parkour parkea eta atsedena.
- Festa tematikoa.
- Sexu-hezkuntza.
- Auzoko jaiak.
- Udako jarduerak

EXCEL HAURRAK

GAZTERIA

- Gazteen prestakuntza, kualifikazioa eta enplegurako sarbidea, bereziki zaugarrienen kasuan.
- Gazteei etxebizitza eskuratzen laguntzeko ekintzak.
- Gazteen osasun mentalari buruzko azterlan bat sustatzea eta, horren emaitza kontuan hartuta, ekintza zehatzak egitea. Positibotzat jotzen da aholkularitza horretara bideratutako aurrekontua handitzea.
- Dirulaguntza-deialdien planteamendu berri bat egitea; izan ere, lege berriak zenbait urtetarako proiektuak aurkezteko aukera ematen du, gauzatze-epe luzeagoekin.
- Gazteei bideratutako komunikazio-kanpainak hobetzea.
- Elkargunera gazte gehiago erakartzen saiatzea (Gazteria Planaren scape room-a jarri dute adibide gisa).
- Ikastetxeetara joan eta etortzeko mugikortasuna hobetzea, mugikortasuneko elkargunearekin lankidetzan.
- Gaueko aisialdi-guneak sustatzea.
- Indarkeria matxistari aurrea hartzeko ekintzak.
- Bullyingari aurrea hartzeko programak.
- Mugikorraren gehiegizko erabilerarekin lotutako kontzientziazio-kanpainak (pornoa, apustuak, adikzioa).
- Asexoria indartzea eta hari aurrekontu handiagoa hornitzea, LGTBI eta ihesaren aurkako beste elkarte batzuekin batera.
- Elkarteei bideratutako partidak handitzea. Asko dira kolektiboak eta gutxi baliabideak; horien artean sortzen den lehiak ez du ezertxo ere laguntzen.
- Edizio honetan elkartu diren hiru elkarguneen artean sinergiak ahalbidetzea, hurrengo urtera begira, hiru planak elkarrekin lotuko dituen aurrekontu-proposamen bat aurkeztu ahal izateko: Gazteria, Bizikidetzeta eta Aniztasuna, eta Berdintasuna.

EXCEL GAZTERIA

INGURUMENA

- “Ibilbide erosoak” sortzea, hiriko itzalguneak areagotuz edo erdibitzaileetatik igartzeko aukera erraztuz eta sustatuz (Forondako Atarian bezala, adibidez).
- Jolasguneak edo bestelako aisialdi-guneak estaltzea, klimaren aurkako ekintza-irizpideak kontuan hartuta.
- Iturriak egokitzea, maskotek eta beste animalia batzuek ura edan ahal izan dezaten.
- Arriaga parkeko sekuoiak berrikustea.
- Errepide nazionalaren ganean dagoen eraztun berdeko zubiari jarraipena ematea, bidegurutzak sortuz eta trafikoa baretuz (Cesarrek azaldu duenez, errepide horiek Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoak dira).
- Eraztun berdea behin betiko jostea oraindik loturarik ez duten lekuetan.
- Zabalganatik jaisten diren ibaiak garbitzea (Cesarrek azaldu duenez, URAk bakarrik garbi dezake ibaietako ura).
- Etxeko hondakinen kudeaketa egokiari buruzko kontzientziazio-kanpaina.
- Udal-eraikinen energia-efizientzia hobetzea eta Udalaren aldetik energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
- Energia-komunitateak sustatzen jarraitzea.
- Hiriko espazio publikoan egiten diren obrek sortzen duten hots- eta ingurumen-kutsadura gehiago zaintzea eta kontrolatzea.
- Bide publikoan obra edo inbertsio jakin batzuk egiteko kentzen edo mozten diren zuhaitzei buruzko datuak eta landatzen edo beste eremu batzuetara eramaten diren zuhaitzei buruzko datuak argitaratzea eta ematea.

EXCEL INGURUMENA

MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

- Bizikletentzako aparkaleku gehiago behar dira.

- TUVISAko geltokien ondoan bizikletentzako aparkalekuak jartzea proposatzen da, batetik, bizikleta erabiltzen duten pertsonen zerbitzu emateko eta, bestetik, intermodalitatea errazteko.
- Berdeguneetatik hurbil dauden eremuetan (Armentia, Zadorrako Eratzuna eta abar) bizikletentzako aparkalekuen kopurua handitzea.
- Bidegorrien trazadura hobeto zehaztea.
- Gasteizko kontzejuekin loturak gaitzen hastea.

- BEIren linean autobusen maiztasuna hobetzea, larunbatetan ibilgailu kopurua handituz, ordua egokitzeko geltokian itxaronaldiak horren luzeak izan ez daitezzen.
- Gasteizko jaietan, Mendizorrotzako Azokara gautxori bat gaitzea.
- Oroimenerako Zentroaren inguruan patineteak aparkatzeko gunek bat gaitzea.
- BEIren trazaduran irisgarritasuna eta segurtasun-neurriak hobetzea.
- Irisgarritasun-legea betetzen ez duten oztopo-zutoinak kentzea eta aldatzea.

EXCEL MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

ADINEKOAK

- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua.
 - Partida 20.000.000 €-ra igotzea.
 - ELZ zerbitzuak ematen duen arreta familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoarekin (FGZPE) osatzea, zenbatekoak murriztu gabe.
 - Arreta-denborak bikoiztea eta 1.080 eurotik beherako errentak dituztenei zerbitzua doan ematea.
 - Zerbitzua kontratatzeko prestazio ekonomikoak areagotzea, eta Udalak aparteko egoerak aurreikusi eta udal-baliabideekin estaltzea.
 - ELZ udal-zerbitzu bihurtzea.
 - ELZ zerbitzuan lan egiten dutenen pertsonentzako prestakuntza. Etengabeko prestakuntza izatea, eta ez Pertsonarengan

Oinarritutako Arretaren arlokoa bakarrik; harremanetan oinarritutako arreta-eredua ezartzea. Elkarteek prestakuntza horretarako dituzten baliabideak erabiltzea.

- Zerbitzua kontratatzeko prestazio ekonomikoak jasotzeko gehieneko denbora-tarte bat esleitzea eta plaza publiko gehiago sortzea.
- Adinekoen aurkako tratu txarra.
 - Adineko pertsonen aurkako tratu txarrei buruzko prestakuntza sustatzea udal-profesionalei eta adineko pertsoneri eskaintako zerbitzuetan esku hartzen duten enpresa pribatuei.
 - Salatzeko mekanismoak sortzea eta gizarte-arreta azkar jasotzeko aukera izatea.
 - 2023ko aurrekontuan partida bat gaitzea, adinekoen eta emakumeen aurkako tratu txarrei (genero-indarkeria) aurrea hartzeko prestakuntzarako.
- Itxaropenaren Telefonoarekin hitzarmen bat sinatzea.
- Hitzarmenak % 2 handitzea. Hitzarmenek dirulaguntzek baino balorazio hobea dute, proiektuak finkatzeko aukera ematen dutelako. Igoerak KPIarekin lotuta egon beharko luke gutxienez.
- Partida hauek handitzea:
 - BIZAN zentroak kudeatzeko aurrekontua 5.000.000 €-ra handitzea.
 - Zaramagarako eta Aranbizkarrarako eguneko unitateak.
 - Familia zaintzaileei laguntzeko programarako aurrekontua 150.000 €-ra handitzea.
 - Hirugarren adinekoen egoitzetako animazioa 500.000 €-ra handitzea.
 - Adinekoen apartamentuetako langileen aurrekontua 500.000 €-ra handitzea.
 - Adinekoak lekualdatzeko aurrekontua 500.000 €-ra handitzea.
- Bakardadearen aurkako programa.
 - 100.000 €-ko partida sortzea.
 - Bakarrik bizi diren adinekoen errolda egitea, esku hartzeko plan bat egiteko.
 - Nahi gabeko bakardadeari buruzko azterlan bat egitea.
 - Gai horri buruzko biltzar bat egitea.
- Gizarte-langileen kontratazioa handitzea proposatu da, etxean adineko pertsonarengandik hurbil dagoen pertsona profesional bat ezartzeko.
- Las Cuatro Torres elkarteari lokal bat eskaintzea, bakarrik dauden adinekoei laguntzen dieten boluntarioak prestatzeko.

- Adinekoei eskaintzen zaizkien zerbitzuei buruzko informazio-kanpaina, publiko horri egokituia.
- Udalerrian behar diren arreta-baliabideen azterketa egitea (auzoka).
- Maiteki programa hornitzea, zaintzaileen behar guztiei erantzuteko.
- Tomas Zumarraga Dohatsuaren kaleko eguneko arreta-zerbitzurako aurrekontua handitzea.

EXCEL ADEINEKOAK

ANIMALIEN BABESA ETA DEFENTSA

- Animaliak Babesteko Zentroan lanaldi osoko al baitari bat gaitzea.
- Honako alderdi hauei buruzko sentsibilizazio-kanpaina zabal bat egitea proposatzen da:
 - Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak etxean hartzeko kanpaina.
 - Ikusten ez diren txakurrak: zaharrak, gaixo kronikoak, desgaitasunak dituztenak eta abar.
 - Txakurrez gain, beste animalia batzuk etxean hartzeko kanpaina.
 - Animaliak ez abandonatzeko kanpaina.
- Udalerriko landa-eremuan mikrotxipak egiaztatze kanpaina bat egitea.
- Animaliekin eta, oro har, naturarekin batera bizitzeko kontzientziatio-kanpainak egiteko partida bat sortzea.
- Animaliak harrapatze eta hiltzeko partidak ezabatzea, eta animaliak "kontrolatzera" bideratuta daudenak mantendu eta partida horiek sentsibilizaziora bideratzea.
- Adoptatu daitezkeen animaliei buruzko informazioa zabaltzea, webgunean eta gizarte-etxeetako eta BIZANeko karteletan.
- Animaliak Babesteko Zentroa. Zentroaren izapideak arintzea: alde zuzeneko hitzordua, ordutegia, eskaera egin duen pertsonari egokitutako arreta.
- Animaliak Babesteko Zentroko funtzionamendu-protokoloak eta izapideei buruzko lan-mahai bat martxan jartzea.

- Animaliak Babesteko Zentroarekin (ABZ) lan egingo duten boluntarioak prestatzeko partida bat sortzea.
- Ingurumena zaintzen diharduten udaltzainen kopurua handitzea; animalien aurkako tratu txarrak desagerrarazteko unitate berezi bat sortzea proposatzen da.
- Datuak ABZko animalien ezaugarriekin osatzea.

EXCEL ANIMALIEN BABESA ETA DEFENTSA

OSASUNA ETA KONTSUMOA

- Suizidioari aurrea hartzeko kanpaina bat egitea.
- Hiriko komun publikoei dagokienez, honako proposamen hauek egin dira: komun gehiago jartzea, Floridan eta Espainiako Bankuan lehendik daudenen irisgarritasuna hobetzea (oztopo arkitektonikoak) eta berriazko kanpaina bat egitea, herritarrei jakinarazteko merkataritza-jardueretako komunak pertsona guztiek erabil ditzaketela, baita bezero ez direnek ere. Era berean, seinaleak hobetzea proposatzen da, komun publikoak non dauden jakinarazteko.
- Osasun Planean, kontuan izan behar da osasun-arloko desberdintasunak daudela generoari dagokionez. Horrenbestez, genu-ihesari eta osteoporosiari aurrea hartzeko ekintzak sustatzeko kanpainak proposatu dira. Azken hori 25 urte arteko gazteei bideratuta dago.
- Kirol inklusiboaren udal-eskaintza eta gaur egun defizit hori estaltzen duten elkarreentzako aurrekontua handitzea.
- Herritarrei elkarre soziosanitarioen sareak ezagutarazteko informazio-kanpaina bat egitea.

EXCEL OSASUNA ETA KONTSUMOA

AUZOGUNEEN 2023KO AURREKONTURA KO PROPOSAMENAK

Atal honetan, auzogune bakoitzean egindako proposamenak jasotzen dira, bi ataletan banatuta.

Lehen atalean, udalerriko zati handi batean edo udalerrri osoan eragina dutenak azaltzen dira, zein auzogunetan egin den zehaztu gabe.

Bigarren atalean, berriz, auzo bakoitzari dagozkion proposamenak xehatu dira.

UDAL-ESPARRUA

EXCEL AUZOGUNEAK HIRI-EREMUA

- Bidegorriak areagotzeko dauden proiektuei buruzko informazioa ematea.
- Bizikletentzako aparkalekuen sarea.
- Auzo-elkarteentzako dirulaguntzak lehenago ordain daitezela eskatu dute, baita horien zenbatekoa nabarmen handitu dadila eta justifikazioetan bankuko komisioak sar daitezela ere.
- Hainbat auzotan egin diren gizarte- eta hirigintza-arloko azterketen ondoren, faltan bota da emaitzak partida zehaztetan ez islatzea, atxikita dituzten eta Eusko Jaurlaritzak onartu dituen birgaitze-planetarako.
- Eraikinak birgaitzeko partida gaitzea azken ekitaldietan erabili ez den zenbatekoarekin.
- Gazteek arazo handiak dituzte alokairuko etxebizitzak aurkitu eta emantzipatu ahal izateko; horrenbestez, gazteentzako etxebizitzak alokatzeko politikak eskatu zaizkio Udalari.
- Ignacio Aldecoa ikastetxe zaharra gazteentzako bizileku bihurtzea.
- Oso informazio gutxi dago Herrandarren kaleko proiektuari buruz. Herritarrek ez dakite dagoeneko itxita dagoen proiektua den edo herritarren iritzia kontuan izango den, bereziki inguruko bizilagunena.
- Udal-ondarearen salmentaren menpeko partidei buruzko informazio gehiago ematea.

- Ikastetxeetan eta gizarte-etxeetan ingurumen- eta soinu-neurgailuak instalatzea.
- Establezimenduei terrazak instalatzen uztea 50 km/h-ko abiadurako zirkulazioa ahalbidetzen duten eraztun laranjako bidegorrietako aparkalekuetan.
- Ur-zurrusta bertikaleko iturriak kendu eta higienikoagoak diren beste batzuk jartzea.
- Araneko Geriatrikoa alzheimerra duten pertsonentzako lagunduriko egoitza gisa gaitzea.
- Vitoria-Gasteiz Hobetuz-en zuzkidura handitzea.
- Hiriko obren inguruko hausnarketa orokor bat partekatu da: ez dago plangintza argirik, eta horrek kezka sortzen du; izan ere, ez da gardentasunez jakinarazten noiz eta nola egingo diren, eta ez da aztertzen obra horiek beharrezkoak diren. Era berean, garrantzitsua da jarduketa txikiagoa behar duten premia zehatzak jarduketa handiagoa behar dutenekin uztartzea.
- Garbiketari eta edukiontzien erabilerari buruzko kontzientziazio-kanpaina.
- Energia-pobretasunerako laguntza gehiago.
- Bateria-aparkalekuetan plastikozko topeak jartzea, espaloia inbaditu ez dezaten.
- Auzoetako jaietarako partida berezia: garbiketa, komun eramangarriak eta bizikletentzako aparkalekuak.
- Egoera txarrean dauden zuhaitzak aldatzeko eta hutsik dauden txorkoetan berriak jartzeko partida.
- Etxebizitzetan energia berritzeko eta irisgarritasuna ahalbidetzeko laguntzak.
- Bide-kontzientziaziorako kanpaina, ibilgailu bat izateak sortzen duen erantzukizuna argi utziz.
- Txakurren hondakinak bertan uzten dituzten pertsonak kontrolatzea.
- Pintadak garbitzea eta zehapen-erregimena aplikatzea.
- TUVISA. Autobusen ordutegia gaura luzatzea.

- Auzoko polizia berreskuratzea eta presentzia aktiboa eskatzea.
- Merkataritza. Tokiko merkataritza babestea. Aukera gehiago eta zerga gutxiago.

AUZOAK

EXCEL AUZOGUNEAK AUZOZ-AUZO

ABETXUKO

- Plaza Nagusia estaltzea. Proposamen honek Udalak uste baino aurrekontu handiagoa behar duela uste dute; izan ere, proposamenak ez dio erantzuten auzotarrek nahi dutenari. Aurrekontua handitzea.
- Ancoraren proiektua. Ezartzea eta gauzatzea.
- Herritarren arretarako bulegoa auzoan.
- Helduen hezkuntzarako (HHE) gunea gizarte-etxearen eranskin gisa erabiltzea, gunea eta jarduera berriak sortzeko.
- Presa kalearen atzealdea. Ibilgailuak aparkatzean, aurrealdearekin jotzen dute. Kutxatila bat konpondu behar da. Atzealde horiek publikoak edo pribatuak diren jakitea. Eta, publikoak badira, horiek garbitu daitezela eskatzea.
- Oro har, auzoa hobeto garbitzea.
- Plaza Nagusiko zuhaitzak kimatzea (8. zk.); argia kentzen diete etxebizitzetara.
- Beira birziklatzeko edukiontzia Ibaialde kalean; beira asko sortzen da kale horretako elkartean eta tabernaren aldetik.
- Kale Nagusiko argiztapena hobetzea: HHEtik ikastolara.
- Intxaurren eta Zadorra kaleetako kulunkak berritzea.
- Presa kaleko parkea: hiri-altzariak eta kulunkak aldatzea, paperontzi eta edukiontzi gehiago ezartzea, eta zuhaitz gehiago jartzea.
- Iturrizabala kalea. Kalearen amaieran biribilgune bat sortzea, bira eman ahal izateko.
- Trafikoa: Abetxukon abiadura murriztea. Trafikoa arintzeko plana.

ADURTZA

- Espaloiak, galtzadak eta hiri-altzariak hobetzea.
- Hondatuta dauden parkeak birmoldatzea.
- Eremuak naturalizatzea (plazak, kaleak, Zumakadiko BEI geltokia), plazetan eta parkeetan mahaiak eta eserlekuak jarrita.
- Tokiko merkataritzari laguntzea; orain arte azalera handien alde egin da auzoan.
- Adurza Ikastolako patioa naturalizatzea, zementuzkoa baita.
- Komun publikoak instalatzea.
- Carlos Abaitua kaleko jardinerak kentzea, egoera txarrean daudelako eta inguruan zikinkeria sortzen dutelako.

ARANBIZKARRA

- Legutianoko Atean esku-hartze integral bat egitea.
- Burgos kalean noranzko bakoitzean bidegorri bat egitea, bi espaloietako baliabideetara iristeko.
- Madril kalean arkitektura-oztopoak kentzea, arrapalak jarrita.
- Aranzkarrarako eguneko zentroa.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako komun bat instalatzea Amaia Zentroaren ondoan gaur egun itxita dagoen ataripean.
- Lurpeko aparkalekua Valladolid kaleko oinezkoentzako pasealekuan.

ARIZNABARRA

- Espaloiak, galtzadak eta hiri-altzariak hobetzea.
- Komun publikoak instalatzea.

ERDI AROKO HIRIGUNEA

- Arkupeko ibilbidean gas-hodiak garbitzea.
- Utzita dauden lonjak birmoldatzea eta/edo komun publiko gisa gaitzea.
- Erdi Aroko Hirigunerako aparkalekuak eskaintzea.
- Pisu turistikoak kontrolatzea.
- Santo Domingo kaleko arazoak konpontzea.
- Lasai egoteko uharte txikiak sortzea, zuhaitzak, eserlekuak eta iturriak ezarriz, baldosa gehiegirik gabe.
- Arrapalak eta igogailuak mantentzea.
- Bilketa pneumatikoa hobetzea eta kalean uzten diren tresna handiak kontrolatzea.
- Gaueko aisialdiarekin lotutako zarata eta zikinkeria kontrolatzea langile espezifikoekin.
- Erdi Aroko Almendrara sartzen diren ibilgailuak kontrolatzea.
- Eraikinak guztiz birgaitzeko aukera ematen duten laguntzetarako arauak argitaratzea.

PILAR

- Jangela El Pilar zentroko Bizanen.
- Oinezkoentzako zebra-bide bat behar da Paraguai kaleak eta Puerto Rico kaleak bat egiten duten puntuan.

- Paraguai kalean argiztapena hobetzea.
- Caracas kaleko jolas-aretoaren problematika Pilar auzoan.

GAZALBIDE

- Gazalbiden argiztapena hobetzea, bereziki musika-kontserbatorioaren atzealdean.
- San Viator kaleko zuhaitz-guneak hobeto garbitzea.
- Gazalbide gizarte-zentroa; auzo-elkartearentzako lokalak handitzea.
- Don Vela Kondearen kaleko bidegorria berriz margotzea.
- Don Vela Kondearen kaleko pasealeku nagusia oinezkoentzat bakarrik dela señaleztatzea (eta ez bizikletentzat edo patineteentzat).
- Don Vela Kondearen kaleko pasealekuetan hiri-altzari gehiago jartzea (eserlekuak).

GOIKOLARRA

- Zuhaitz, berdegune eta udal-instalazio berrietan inbertitzea.
- Garraio publikoaren maiztasun handiagoa Goikolarran.
- Hiri-baratzeak.
- Auzoko lurzatiengatik garbiketa; horietako askok hesituta egon beharko lukete.
- Poliziaren presentzia handiagoa, Goikolarran trafikoa eta gizalegearen kontrako ekintzak kontrolatzeko.
- Komun publikoak instalatzea.

IBAIONDO

- Zadorra hiribidearen eta Donostia kalearen arteko bidegurutzeari semaforo bat jartzea. Oso arriskutsua da eta hainbat pertsona harrapatu dituzte.
- **KIMAKETAK:**
 - Oinezkoen pasabideetatik gertu, ikuspena kentzen dutelako eta oinezkoentzat arriskutsuak direlako. Bi parte-hartzailek planteatutako proposamena.
 - Galeoiaren parkeko banbuak. Gune arriskutsuak sortzen dituzte eta ez dute ingurumen-baliorik.
 - Landaberde eta Baiona kaleetako erdibitzailean.
 - Baiona-Orhi kaleko bizikletentzako zirkuituan.
- Lakuabizkarra Institututik gertu dauden kulunkak eta aspertsoreak konpontzea.
- Galeoiaren parketik hurbil dauden futbol-zelaietako moketa aldatzea.
- Led argiak jartzea.
- Fernández de Pinedo parkean mahaiak jartzea.
- Donostia kalean eserlekuak eta mahaiak jartzea.
- Itzalguneak dituzten (zuhaitzak) eserleku gehiago instalatzea, hainbat eremutan.
- 25. parkea konpontzea (Getaria-Orhi-Andia Mendiaren kaleetan).

JUDIMENDI

- Bizan zentro berria auzoan, aspaldidanik egiteko dagoena.
- Hainbat belaunaldirentzako ekipamendu estalia bide publikoan.
- Parke bio-osasungarria.
- Bide publikoa birgaitzea, hiri-altzariak barne.
- Komun publikoa auzoan.

- Gizarte-etxea erabat birmoldatzea, azpiegitura bera nahiz programazioa.

LAKUA-ARRIAGA

- Eserlekuak eta gunee estali bat instalatzea Arriagako Bizan zentroan.
- Arriaga Parkeko eserlekuak eta mahaiak altuegiak dira.
- Arriagako espaloietatik eta parketik igarotzen diren patinak eta bizikletak kontrolatzea.
- Arriagako parkean komunak jartzea.
- F. Xabier Landaburu kalea asfaltatzea 2. zenbakiaren eta 46. zenbakiaren artean.
- Arriagako baldosak, espaloiak eta estoldak konpontzea.
- Voluntaria Entrega kaleko 2. zatia erabat asfaltatzea. Lehen zatia bakarrik egin da.
- Aldagelak Lakua Arriagako futbol-zelaian; nabarmen handitu da zelai hori erabiltzen duten pertsonen kopurua eta ez daukagu aldagarik emakumeen taldearentzat.

SAN KRISTOBAL

- Espaloiak, galtzadak eta hiri-altzariak hobetzea.
- Hondatuta dauden parkeak birmoldatzea.
- Eremuak naturalizatzea (plazak, kaleak, Zumakadiko BEI geltokia), plazetan eta parkeetan mahaiak eta eserlekuak jarrita.
- Tokiko merkataritzari laguntzea; orain arte azalera handien alde egin da auzoan.
- Iturritxu kaletik etengabe igarotzen diren toldorik gabeko kamioiak kontrolatzea.
- Maurice Ravel inguruan gunee bat estaltzea.

SAN MARTIN

- San Martin inguruan argiztapena handitzea, zuhaitzek Vera Fajardo Margolariaren kaleko argiztapena estali ez dezaten.
- Doublang Margolariaren kalean eserlekuak jartzea, elizako eta udaletxeko espaloian.
- San Martin auzoko jolas-eremua hobetzeko proposamena.

SANSOMENDI

- Erabilera publikoko plaza pribatuak. Udalak lorategiak, hiri-altzariak eta garbiketa manten ditzala eskatzen da.
- Aparkalekuak. Gehiago behar dira. IPI Sansomendin adibidez, osasun-zentroaren parean, Paula Montal kalean.
- Agoraspace kirol-eremua. Petatxatu egin da, baina ez ditu gutxienekoak betetzen. Paula Montal eta Antonio Machado kaleen artean.
- Haur-jolasak pisu gorrien plazan. Berritzea eta handitzea.
- Sansomendi eta Paula Montal kaleetako hiri-altzariak modernizatzea eta horiek aldatu edo berritzea.
- Argiztapena. Gune batzuetan oso argi gutxi dago, zuhaitzetako hostoek farolak estaltzen dituztelako; horregatik, zuhaitzak gehiago kimatu behar dira. Argi gutxiko eremu horien artean, Bizan Plaza nabarmentzen da.
- Paula Montal kaleko 9. zenbakian dagoen ikastetxe publikoa: zikinkeria eta desordena. Zuhaitzetako adarrak erori izan dira ondoko espaloietara, arrisku handia sortuz; zikinkeria ere ohikoa da.
- Autobusak eta zebra-bideak Paula Montal kaleko 4. zenbakian. Zebra-bidea autobus-geltokiaren parera eramatea proposatu zen Paula Montal kalean, 6. blokearen parean. Horrela irtenbidea emango zaio beste arazoari, gaur egun Paula Montal kaleko 4. zenbakian dagoen geltokia garajeen irteerarekin bat datorrelako.
- Gurpil-aulkientzat eta mugikortasun murrizteko pertsonentzat egokitutako bidegurutzeak oso zaharkituta daude.

- Zuhaitziak, txorkoak, lorategi osasungaitzak. Zuhaitzak gehiago kimatzea, txorkoak garbitzea eta lorategiak ureztatzea.
- Aliren etxeen inguruko pinuak. Bertan bizi diren pertsonen arabera, dirua inbertitzen dute pinuen hostoek itsutzen dituzten erretenak garbitzeko.
- Usainak industrialdean. Usainek jarraitzen dute. Hesi berde bat sortzea proposatu da, makaldi bat, adibidez.

TXAGORRITXU

- Oinezkoentzako pasabide bat behar da Abendaño Ikastolaren parean.
- Txagorritxuko jolas-lokala ikastetxearen aurrean; ikuspena kentzeko edo sartzeko atea beste kalera aldatzeko aukera.
- Txagorritxuko Haurreskolaren atzean, parkean, dagoen erabilerarik gabeko minigolfa kentzea eta eremu hori gizarte-topaketarako gune gisa (mahaiak eta eserlekuak) edo beste erabilera baliagarriago baterako erabiltzea.
- Enrique Eguren kalean lokal asko daude itxita eta partaidetza-prozesu bat egin beharko litzateke eremua biziberritzeko.

ZABALGANA

- Auzoak garbitzeko partida handitzea, auzoa garbiago mantentzeko eta jabetza pribatukoak diren hiritartu gabeko lurzatietan gauzatze subsidiario gehiago egin ahal izateko.
- Ibaiak garbitzeko partida bat txertatzea Perretxin ibairako eta antzeko egoeran dauden udalerriko beste ibai batzuetarako.

- Bide-segurtasunaren ikuspuntutik, Zabalzana Institutuaren ingurua hobetzeko partida bat gehitzea.
- Hiri-altzariak mantentzeko zuzkidura handitzea, instalazioen baldintzak hobetzeko.
- Zabalzana HLHI eskolako irteeran dagoen bidegorria lekuz aldatzea, oso arriskutsua delako.
- Zabalzana auzoaren barruan ibiliko den autobus bat gehitzea.

ZARAMAGA

- Koldo Mitxelenako atearen parean bidegorri bat eta oinezkoen pasabide bat sortzea.
- Espaloiak konpontzea Gasteiz, Zuia, Biasteri, Nafarroako Errege-Erreginak eta Legutioko Ataria kaleetan eta ondokoetan.
- Eguneko arreta-zentroa.
- Biasteri kalearen atzealdean jarritako hartxintxarra aldatzea, zikinkeria guztia hartzen duen zoladura delako eta ezin delako erratzarekin garbitu.
- Hutsik dauden txorakoak betetzea; zuhaitz bat erortzen edo lehortzen denean, erorketak gerta daitezke.
- Zaramagan TAO zabaltzea. Gainera, inguruko merkatarien ibilgailu guztiei aparkatzeko aukera ematea eskatzen da (ez 3.500 kg baino gehiago pisatzen dituztenei bakarrik).
- Herrandarren kaleko geltoki zaharra haurrentzako gune bihurtzea.
- Aldageletan Osasun Mentaleko Zentro bat sortzea.

EZTABAIDA- PROZESUARI BURUZKO GOGOETAK ETA PROPOSAMENAK

Beste edizio batzuetan bezala, Gizarte Kontseiluak zera eskatu dio Udalari, urteko aurrekontu-proiektuaz eztabaidatzeko ezinbestekoa dela:

- Gai hauei buruzko informazioa hobetzea:
 - o Dokumentu ulergarriagoa eta argiagoa prestatzea, herritarren parte-hartzea errazteko; horretarako, informazioa emateko ahalegin handiagoa eskatu dute.
 - o Ulermena errazteko euskarriak erabiltzea: bideoak, grafikoak, marrazkiak...
 - o Aurreko urteko aurrekontuarekin alderatzea, egin diren aldaketa esanguratsuenei erreferentzia eginez.
 - o Elkarguneei eta auzoguneei behar adina denbora lehenago helaraztea dokumentazioa.
 - o Herritarrei udal-aurrekontua osatzen duten kapituluaren esanahiari buruzko informazioa ematea.
- Herritarrek parte hartzeko organoen gaiekin zerikusia duten eta hainbat udal-sailen menpekoak diren partiden berri ematea.
- Aurrekontuetan agertzen diren partida orokorrak xehakitzea eta, hala badagokio, informazio gehiago ematea (udal-planei buruzko gaietan, adibidez).
- Konpromisozko kredituei buruzko informazio gehiago ematea.
- Hiriko auzoetarako aurreikusita dauden inbertsioei buruzko informazioa.
- Beste erakunde batzuek udal-aurrekontuari egiten dizkioten ekarpenak zehaztea.
- Udal-ondarearen salmentaren menpekoak diren partiden berri ematea.
- Eskola Kontseiluari Udal Gizarte Kontseiluaren nahitaezko txostenak egin aurretiko eztabaidetan parte hartzeko aukera ematea.

EXCEL EZTABAIDATZEKO PROPOSAMENAK

Amaitzeko, espero dugu Gobernu Taldeak eta gainerako udal-talde politikoek planteatutako proposamenak balora ditzatela. Era berean, espero dugu horiek urteko aurrekontu-proiektuan txertatu dituzten edo ez justifika dezatela, edo aurrekontu-eztabaidan zehar aurkez daitezkeen zuzenketetan.

Gizarte Kontseiluak eskerrak eman dizkie, beren balioespen eta proposamenen bidez, txosten hau egiten lagundu duten pertsoneri. Eta Gasteizko herritarrak animatu nahi ditugu gure udalerrriaren diru-sarrera eta aurrekontuen inguruan etorkizunean egingo diren eztabaidetan aktiboki parte hartzera, denon artean eraiki nahi dugun hiri-eredua definitzeko balio izango dutelakoan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 13a